



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2019ko maiatza · 351 alea

TOKIKOM

UDAL-HAUTESKUNDEAK  
**ALDERDIAK, HAUTAGAIK ETA  
PROPOSAMENAK**



# PIL-PILEAN 351

2019ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:

Oier Larreategi

## Aurkibidea

- 4 **Begira** Irukurutzeta eguna
- 6 **Argazki bidez** Patriaren grabazioa
- 8 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 10 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 15 **Erreportajea** Udal hauteskundeak
- 24 **Kirola** Kirol udalekuak eta kirol eguna
- 25 **Kultura** Trikitixa eguna eta kultur ondarea
- 26 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA

- 3 **Neuretik** Alberto Iñurrieta  
*Meditazioa vs medikazioa*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen  
Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus  
**Zuzentzailea**  
Leire Ginea

### Diseinua

Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Maketazioa**  
Oier Larreategi

### Inprimategia:

Gertu Koop.  
**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Meditazioa vs medikazioa



ALBERTO IÑURRIETA

**A**spaldi honetan osasunaren alorrean zein hezkuntza munduan sarri entzuten dugu meditazio berba, baina zer da meditazioa?

Ikuspegi batetik edo bestetik begiratu, definizioa ezberdina izango da. Orokorrean, meditatzea da barrura begira jartzea, alde batera uztea pentsamendua eta murgiltzea barnetasunean, gelditzea kontenplazioan, eta, beraz, prozesuak suposatzen du mantsotzea, moteltzea. Zaila du meditazioari lekua egitea, akzioari, azkar aritzeari, bizkortasunari lehentasuna ematen dion gizarteak, ez baitago astirik halako txatxukerietan aritzeko. Are gehiago, erlijioaren hatzamarretatik ihes egin nahian dabilenarentzat mehatxu kutsua du.

Gizarte hau, gizakiok konplize gaituela, diseinatuta dago gero eta azkarrago joateko eta gogo horretan jarduten dugu sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe. Zeozer gaizki badabil, behar dugu erantzun azkarra, eta horretarakoxe garatu dugu osasun-sistema erraldoi bat hazten eta hazten doana eskaintza osatuena eskaini arte.

Gizarte honetan jendea medikatuta bizi da, hau da, ondoez txikienaren aurrean, botikaren bat hartzen dugu. Ez dugu aukerarik denbora galtzeko. Horrela bizi izaten dugu ondoezak ekartzen digun mezua.

Nahi eta nahi ez, bizitzan zehar aurkituko ditugun sentzazioak ez dira beti gozagarriak izango, gainera bizitza osatua edo betea ez da lortzen beti sentzazio gozagarriak izanda, baizik eta aurkeztuko zaizkigun hainbat arazoei ongi etorria eta erantzun egokia emanez. Horrek eroaten gaitu garenari eta ez daukagunari begiratzera. Horretara dator zutabe labur honi izena ematen dion titulua: meditazioan aritzeak, politikasunari lehentasuna emateak lagunduko digu medikazioa gutxitzen.

Gustukoena ez bada ere datorrena onartu eta entzun ondoren, ahal bezain ondo erantzun. Horretxek ematen du kalitate handiagoko bizitza garatzeko aukera.

Zein garrantzitsua litzatekeen meditazioa eskoletan irakastea, Gaztetatik erakusteko bizitza gozagarriak garatzen, urjentziazkoen orde.

**MEDITAZIOAN  
ARITZEAK  
LAGUNDUKO DIGU  
MEDIKAZIOA  
GUTXITZEN**





# Irukurutzeta Eguna

**ARGAZKIA:** MIKEL VALERO.

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

Aurreko urteetan baino jende gutxiago hurreratu da aurten Irukurutzeta Eguneko ospakizunera. Berrogeita hamarren bat mendizale gutzira. Hori bai, urtero moduan, mugakide diren inguruko herri guztiek izan dute ordezkaritza: Elgoibarrek, Azkoitiak, Bergarak, Soraluek eta Osintxuk -guretzat herri estatusa izan du beti-. Eguraldi ederra egin arren –haize fina eta eguzki epela-, herritar gutxik hartu zuten domekan mendigainerako bidea. Zergatia? Ezin jakin. Hamaika t'erdietarako zintzo demonio txorixoa eta salda eskaini zituzten antolatzaileek hainbat hipotesi erabili zituzten ahotan: aurreko eguneko zaparradak, propaganda gutxitxo, beste ekimen batzuk inguruan... Irakurle, zuk zergatik uste duzu joan dela aurten hain jende gutxi halako ekimen ederrera?





# Amaitzera doa

**TESTUA** UBANE MADERA

ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO, UBANE MADERA ETA PAGOETA MEDIA

*Hasi da Patria* teleaileko grabazioen atzera kontaketa.

Aurreikusitakoaren arabera, datorren asteko eguenera arte jardungo dute grabatzen, eta, amaitzeko, ekainaren hasieran beste bi egunez. Eta kito. Hortantxe amaituko da askorendako entretenimendu ederra eta beste askorendako buruhauste galanta izan den jarduera.

Hori bai, ukatzerik ez dago eurei esker ikusi eta ikasi dugula, adibidez, zein ondo irudikatzen duten euria; zein eternalak diren grabazio egunak, zenbat bider errepikatzen duten eszena berbera, zenbat jende mugitzen den euren bueltan, zelako catering osatuak dituzten eta zelako janzkerak erabiltzen genituen 80ko hamarkadan.











## Non arraio

Bila itzazu irudi nagusian honoko elementu hauek:



5  
untxi



10 arrain



5

paperezko  
itsasontzi

3 igel



## Irudi engainariak

Hamabi zati haueetatik best irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako zazpiak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.




## Hamabost

Alde handia dago irudi nagusiko zuhaitzaren eta goiko honen artean. Guztira 15 desberdintasun dituzte biek. Ikusten al dituzu?

## DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



## Itzala

Zein da itzal zuzena?



# Itxuraldaketak hainbat gunetan

Errabal kaleko bi etxeak bota dituzte egunotan, baita Iturburu pasealekuko arbolak ere, aldaketa nabarmenak eraginez.

Azken egunotan, nabarmen aldatu dira itxuraz herriaren erdiguneko bi gune.

Batetik, Aurreku taberna zeneko eta haren ondoko eraikinak bota izanak zulo galanta laga du Errabal kalearen erdiko partean. Joan den astean hasi zituzten bi etxeak eraisteko lanak, eraikinotako amiantoa erretiratu eta gero.

## Iturburu pasealekuan

Bestetik, Iturburu pasealekuan zeuden arbolak bota egin dituzte, Udalak hango berdeguneetan proiektu berria gauzatu nahi duelako.

Hain justu ere, albo bietan lorategia eta erdigunean ortua egokitu nahi ditu eta bertan zeuden magnoliek ematen zuten gerizpeak eragotzi egiten zuen loreak eta landareak



Etxeek lagatako zuloa.

bertan haztea. Behin hiru gunepak egokituta, egurrezko hesiz babestuko dute inguru guztia.

Bestalde, lekuan bertan, berdegunearen amaieran, arrapala eraikitzen dihardute, Gogortuz fisioterapia zentroak beheko solairuan egokituko duen zerbitzu berrirako.

## Udalekuetarako izen-ematea

Maiatzaren 20tik 31ra bitartean eman ahalko da izena aurtengo udaleku irekietan.

Datozen egunotan helaraziko dituzte izen-emate orriak ikastetxearen bitartez, eta horiek bete ondoren, udaletxean entregatu beharko dira.

Bestalde, hobarien berri ere bide bera erabilia emango dute.

## Kalea jolastoki

Uztailaren 8an hasiko dira udaleku irekiak, eta uztailaren 19an bukatu.

Bi aste horietan 4-12 urte bitarteko umeei zuzendutako jolasak, tailerrak, kantuak, bainutokietara irteerak eta bestelako jarduerak egingo dituzte, herriko kaleetan ibili zein ingurutara irteerak egingo dituzte Kukumixoko begiraleek gidatuta. Kanpora lo egitera ere joan ohi dira.

Iaz 200 bat umek parte hartu zuten Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartearen ekimenean.


## Plastiko gutxiago erabiltzeko eskaria

Instititutuko 1., 2., 3. eta 4. mailako 30 bat gaztek hondakinekin eta bereziki plastikoekin dituzten kezkek eta proposamenak helarazi dizkiete alkateari osoko bilkura berezian. Eskolako Agenda 21aren baitan, besteak beste, plastikoen erabilera gutxitzeko neurriak proposatu dizkiote Udalari, herritarrei eta merkatariari.





# DEBAGOIENeko 2019 XV. TRIKITIXA EGUNA SORALUZEN



- 11:00 HAMAIKETAKOA
- 11:30 KALEJIRA
- 12:30 EKITALDIA ZUBI NAGUSIAN
- 14:30 BAZKARIA KIROLDEGIAN
- 17:00 KONBOAK
- 18:00 ERROMERIA IRATZAR TALDEAREKIN
- 20:00 TRIKI POTEOA



# "Hor aurrean segitu behar dugu"

MARIBEL LOPEZ PENTSIODUNA

Maribel Lopez (Soraluze, 1951) pentsioduna da duela lau urtetik eta, gaur egun, Soraluzeko Pentsiodunen mugimenduko partaidea da. **Ze irakurketa egiten duzue pasa berri diren hauteskundeen emaitzei buruz?**

Espero baino hobeto joan dira, ez duelako eskuin-eskuin muturrak irabazi. Egia esan, PSOE ere ez da oso fidagarria, baina eskuma eta muturreko eskuma baino hobea bada.

**Berehala dator hauteskundeen hurrengo hitzordua; zein da politikariendako zuen mezua?**

Gugan pentsatu egin behar dutela. Nahiz eta pentsioa kobratu, ogasuna eta zerga guztiak ordaintzen segitzen dugu. Ez da nahikoa astelehenero protesta egitearekin, politikariei jarraipen estua egin behar zaie, zerbait egin dezaten. Beti mehatxatzen gaituzte sistema honek etorkizunik ez duela esanda. Toledoko itunaren moduko zerbait egin behar dute berriro ere, serioa eta alderdi guztien adostasunarekin. Eta langileen errententzia ez bada nahikoa pentsioak ordaintzeko,

**"GAZTEEI ESKATUKO NIEKE ETOR DAITEZELA PENTSIONEN ALDE, EA GUZTIEN ARTEAN LORTZEN DUGUN"**



Maribel Lopez.

falta dena konpentsatu egin beharko lukete, Estatuko aurrekontuekin bada ere. Jendeak ez luke ez kobratzearen beldurrik izan beharko. Baina borrokatu egin behar da, hor aurrean segitu behar dugu.


**Herritarrei zein mezu helaraziko zeniekete?**

Jendea mobilizatu dadila ezkerak irabazi dezan, gehiago emango digute.

Andaluziakoaren ondoren, jende gehiagok bozkatu du eta hori behar dugu, mobilizazioa. Gazteei, ostera, esango nieke etor daitezela gure mobilizazioetara. Elkarrekin lor genezake eurek ere soldata duinagoa izatea; izan ere, Gizarte Segurantzari ordaintzeko, etorkizunerako, lanpostu finkoak behar dira, eta gutxienero baldintza batzuk. Mugagabeko lanpostuak izateak ez du bizitza duinak eraikitzeko lain segurtasunik ematen, ez du ezertarako aukerarik ematen.

## Lore lehiaketa abian da

Maiatzaren 31ra arte eman daiteke izena IV. Balkoietako eta Leihotako Lore Lehiaketan. Epaimahaiak ekainaren 1etik 10era bitartean egingo ditu ikustaldiak, eta sariak ekainaren 11n banatuko dituzte: 150 euro eta 75 euro. Izena emateko, izen-abizenak eta balkoia edo leihoa identifikatzeko helbidea eman behar da udaletxean (943 75 30 43).



lazko irabazlea: Imiolda Jesus Mateo.

## Odola ematera joateko deia

Bi hilabetetik behin egiten dutenari segituz, datorren barikuan, maiatzaren 17an, odol ateraldiak egingo dituzte Itxaropena Erretiratuen Elkarteak. Ohikoa den moduan, 18:30etik 20:30ak arte jardungo dute odola ateratzen. Odol emaile elkarteak dei egin die emaileei, bertaratu eta odola eman dezaten.





Zurekin  
**SORALUZE**  
gara

---

**ehbildu**

---



Alkarri elkarteko Juan Fernandez Soraluzeko "posterra" eskuetan duela.

## Soraluzeko ekimena “eredugarri”

Pertsona Nagusiak Ahalduntzeko Batzordea “eredugarri” modura aurkeztu dute International Conference Of Integrated Care kongresuan

Plaentxiako Pertsona Nagusiak Ahalduntzeko Batzordea ekimen eredugarri modura aurkeztu zuten Jose Ezquerrak, Aita Menniko psikologoak, Elena Berezibarrek, Aita Menniko Eguneko zentroetako koordinatzaileak eta Juan Fernandezek, Alkarri elkartearen ordezkariak. Horrela egin zuten apirilaren 1etik 3ra bitartean Donostian egin zen International Conference Of Integrated Care kongresuan.

Soraluzetarrekin batera parte hartu zuten Australiatik, Tel Avivetik, Brasildik, Helsinkitik, Euskal Herriko hainbat puntutatik eta Estatutik bertaratutako profesionalek. “Soraluze nazioarteko kongresu batean egotea oso interesgarria da, Soraluze mapan jarri dute. Uste dugu prozesuak emaitza ona izan duela, behetik gora egin

delako; normalean enpresa bat kontratatu eta hark erabakitzen du pertsona nagusien izenean zer jarduera egin. Soraluzen, berriz, pertsona nagusiek erabakitzen dute zer nahi duten eta diotenaren arabera planteatzen ditugu ekimenak”, horixe azpimarratu du Juan Fernandezek, Alkarri elkarteko koordinatzaileak.

### 50 bat lagun saioko

Hain justu, Esperientzia Gela da batzorde horrek emandako lehen ekimen esanguratsua, eta arrakasta handia izan du: “Aurreikuspena zen ekintza bakoitzean 15-20 bat lagun egotea eta guztietan 20-25 laguneko bina talde egin behar izan ditugu”. Hori ikusita, bestelako ekimenei begira ari dira, funtzionamenduari begira gestioa optimizatu nahian.

## Langabeziak gora egin du berriro ere

Aste Santu ondorengo langabezia datuen arabera, kaskarra da berau Soraluzeri dagokionez.

Izan ere, eta Aste Santu ondorenean ohi denez, Debabarreneko herri guztietan behera egin du langabe kopuruak apirilean, Soraluzen izan ezik. Bertan, hain justu, %13,02tik igo egin da tasa %13,55era. Hori horrela, apirileko datuen arabera, 254 langabe daude Soraluzen.

### Eskualdeko datuak herrika

Deba: 188- %7,05  
Eibar: 1.564- %12,28  
Elgoibar: 495- %7,89  
Mendaro: 78- %7,89  
Mutriku: 198- %7,44  
Soraluze: 254- %13,55

Debabarrena: 2.777  
langabe %10,50eko tasa

## Soraluzetarrak kontratatzeko

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak emango dizkie soraluzetarrendako enplegua sortzen duten enpresei, udalerrikoak izan zein eskualdekoak izan. Indartu izeneko programaren bitartez, itzuli beharrik gabeko laguntzak emango dizkie hainbat baldintza betetzen dituzten enpresei.



# Herriaren gidaritzaz jokoan M26an

Lau alderdik alkategaiak aurkeztu dituzte maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako: EHBilduk, EAJk, PSE-EEK eta PPK. Udalen kasuan, emandako botoen %5a behar da zinegotzi bat eskuratzeko. Soraluzen 11 zinegotzik osatzen dute udalbatzarra eta 2.943 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea.

**B**ertan da datozen lau urteotarako ordezkari politikoak aukeratzeko hitzordua. 16 egun barru zabalduko dituzte, atzera ere, hautetsontziak Arane kiroldegian, herritarrek botoa eman dezaten. Horretarako, lau alderdik aurkeztu dituzte hautagaiak: azken lau urteotan udalbatzan izan diren EHBilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEK, eta ordezkariarik izan ez duen PPK.

Hain justu, azken alderdi horrek 12 lagunez osatutako zerrenda aurkeztu du Soraluzerako: 11 gehi ordezkari bat. Hori bai, hautagai denak kanpotarrak dira. Are gehiago, alderdian bertan galdetuta, Pil-pileanekin hitz egin duten PPKo ordezkarietako batek berak ere ezin izan du argitu nongoak diren hautagaiak, "ez dut uste ingurukoak izango direnik", horixe izan da jasotako erantzuna.

## Zerrendaburuak aspaldiko ezagunak

Gainerako hautagaiei dagokienez, aurpegi ezagunez osatutako zerrenda aurkeztu dute EHBilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEK. Are ezagunagoak dira zerrendaburuak, Unai Larreategi, Iker Aldazabal eta Patricia Borinaga, hirurek, urte luzez jardun baitute herriko politikagintzan.

Bada, ordezkariak izan duten hiru alderdion eskatu diegu azal diezaieten herritarrei zein diren alderdiaren mezu nagusia, bost lehentasunak, alkategaiari buruzko xehetasunak eta elkarri egindako bina galderen erantzunak. Datozen orriotan duzue guztia jasota.

Testua eta argazkiak: **EHBildu, EAJ, PSE-EE eta Ubane Madera.**

**HAUTESKUNDEETAN  
EMANDAKO BOTOEN  
%5 BEHAR DA  
ZINEGOTZI BAT  
ESKURATZEKO**



# ehbildu

Unai Larreategi, Ana Rosa Maiztegi,  
Maite Quintanilla, Roke Akizu, Jone  
Alberdi, Lorea de Castro, Martin Azkarate,  
Hiart Arluziaga, Iker Uzin, Cristina Jacas,  
Txaro Lete, Aitor Barrutia, Maria  
Francisca Aizpuru eta Jose Luis Arizaga.

### Gune zaharkituak berritu

Garbitasunari garrantzia eman eta espazio publikoak zainduko ditugu, ekimenak bizilagunekin adostuz, auzoz auzo. Urtero 100.000 euro inbertituko ditugu erdigunetik kanpoko auzoetan. Beste administrazioen inplikazioa ere bilatuko dugu Santa Ana-Olaldea eta SAPAko eremuak biziberritzeko eta Soraluze-Maltzaga bidegorria egiteko.

### Soraluze txukunagoa, atseginagoa eta seguruagoa

Kontenedore inguruetan zaborra ez pilatzeko neurriak hartuko ditugu. Kaleko gune ilunak argitu eta kableatua berrituko dugu. Komun publiko berriak jarriko ditugu erdiguneari eta bidegorrian erositako lur saila aisialdirako egokitu eta han ere komunak jarriko ditugu.

### Kirola eskuragarriago

Kiroldegi gaina eta Uko gunea haurren aisialdirako zein kultura- eta kirol-ekintzetarako egokituko ditugu eta paddle pista estaliko dugu.

250.000 euro bideratuko dugu proiektu horretara. Era berean, kirola denondako eskuragarriago jartzeko kiroldegiko abonuen kuota %50 jaitsiko dugu.

## Alderdi interesak barik, elkarlana

Herritik kanpora goazenean, askotan entzuten dugu zulo baten bizi garea, baina soraluzetarrok badakigu gustura bizitzeko moduko herria dela gurea. Hala ere, azken urteetan gure herriaren etorkizunaren inguruko kezka zabaltzen ari da herritarren artean. Kezka dago biztanleria galeragatik, herria zahartzen ari delako, langabezia-tasa handia daukagulako... Herria, nolabait, pobretzen ari denaren sentsazioa handitzen ari da. Oinarrizko beharrak eta erronkak ditu, beraz, Soraluzek.

Hortaz, ilusioa berreskuratu beharra daukagula deritzogu.

Guzti hori egingo dugu lan-talde sendoarekin, udalaren kudeaketan esperientzia eta herriaren ezagutza sakona duen ekipoarekin.

Ekonomia bizitu, espazio publikoak zaindu, argitasuna eta garbitasuna handitu, Hezkuntza-proiektua bultzatu eta kirola eskuragarriago jarri nahi du EHBilduk

Soraluze biziagozko ekonomia bizitu behar da eta Udalak hartu behar du erantzukizuna, dauden enpresak zainduz eta berriendako aukerak sortuz. Indar gehien industrian egingo dugu, baina merkataritza, zerbitzu zein nekazaritza ere landuko ditugu. Langabeentzat prestakuntza-plan berezituak abiatuko ditugu.



## EAJri eta PSE-EEri erantzunak

**EAJ:** **Kale argiteria zaharberritzea zuen legealdiko proiektu nagusietakoa izanik, eta ikusita lau urteotan emandako arazoak, zer proposatzen duzue hurrengo legealdirako?**

Lau urteotan Hirigintza batzordeetan proposatu duguna da, argi berriekin urtero aurrezten diren 50.000 euroak erabiltzea zaharkituta dagoen kableatua berritzeko. Izan ere, argiak itzaltzen dira kableatua egoera txarrean dagoelako eta ez farola berriak ipini direlako. Armairu elektriko zaharrak egoera oso kaskarrean zeuden, 'arriskutsu', elektrizisten esanetan, eta horregatik berriztu ziren. Orain, sistema berrituaren segurtasunak salto egiten du zaharkituko kableatuaren inzidentziak detektatzen dituenean. Ez duguna ulertzen da zergatik ez duzuen gaia mugitu.

**PSE-EE:** **Zela ikusten duzue PSEk herriari egin dion udal ekarpena?** PNVrekin egindako paktuak baldintzatu du. Ongizate, berdintasun eta gazteria batzordeetan PSE-EE eta EHBildu egon izan gara (EAJk ez du parte hartu) eta heldu gara oinarrizko akordioetara. Baina udal gobernuaren erabaki asko PNVren menpe egon dira. Zintzoki uste dugu, PSE-EEK ekarpen hobea egingo lukeela EHBildurekin elkarlanean eta ez EAJrekin EHBildu bazterten duen paktuan.

**"URTERO 100.000 EURO INBERTITUKO DITUGU ERDIGUNETIK KANPOKO AUZOETAN"**

**"ARI DIRA HERRIA KUDEATZEN ESTRATEGIA GABE ETA ULERGAITZAK DIREN ERABAKIAK HARTUZ"**

## "Elkarlanean sakondu beharra dugu"

**UNAI LARREATEGI** EHBILDUKO ALKATEGAIA

Unai Larreategi (Soraluze, 1979) da EHBildu koalizioak aurkeztu duen alkategaia **Zergatik aurkezten zara alkate izateko?**

Herritarren bultzada izan da arrazoi nagusia. Plazentziatar izatearen harrotasuna ikutu xamar daukagun honetan, jende ezberdin askok esan dit ilusioa berreskuratu nahi duela gure herriaren alde lan egiteko eta animatzeko berriz ere alkategai aurkeztera. Ez da erabaki erraza izan, bizitza pertsonala eta ingurukoena asko baldintzatzen duelako, baina, egia esateko, gogotsu nator.



**Alkatetza eskuratuz gero, zer egingo zenuke lehenengo?**

Alkatearen soldata zuzentzeaz gain, gaur egungo lan-estiloa aldatu. Ari dira herria kudeatzen estrategiarik gabe, ondorioz, ulergaitzak diren hainbat erabaki hartzen dihardute etengabe.

Dinamika horrekin bukatu behar da, estrategia argi bat definitu eta horren araberako erabakiak hartu. Horrela, hobekuntzak igarriko lirake, baita ekonomiaren gestioan ere.

**Gertu zinateke beste alderdiren batekin gobernu adosteko?**

Urteak daramatzagu esaten guztion arteko lanean sakondu beharra dugula Soraluzen. Filosofia horrekin sortu genuen *Alkarrekin Soraluze Eginez* prozesua. Helburu argiak zituen, alderdi guztiak elkarlanean eta herritarrekin batera eraikitzea herriko etorkizuna. Datorren agintaldirako, proposatzen dugu logika berarekin lan egitea. Ea oraingoan beste alderdiek ere elkarlana hobesten duten, itun baztertzailen orde.



Iker Aldazabal, Veronica Galarraga, Ramon Gallastegi, Abel Olaizola, Mari Carmen Ecenarro, Xabier Alberdi, Jose Javier Garmendia, Maria Angeles Ariznabarreta, Amaia Bedaio, Koldo Ugarte eta Nagore Zabala.

Ekonomia indarberritzea, kultura eta kirol-azpiegiturak gaurkotzea, bidegorria egitea, garbitasuna eta txukuntasuna, eta ideia-lehiaketa dira EAJren lehentasun

Ekonomia eta enplegua indarberritu nahi ditugu enpreekin eta Bizikale merkataritza-elkartarekin elkarlanean. Debabarreneko Garapen ekonomikoko elkartaren laguntzaz (Debegesa) herriko eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatu eta bultzatuko dugu.

### **Kultura-eta kirol-azpiegiturak berritu**

Bestalde, gure lehentasunen artean dago udalerriko kultura- eta kirol-azpiegiturak gaurkotzea ere, jarduera horietarako gune berriak sortzea, herriko elkarteek dituzten beharrei erantzuteko. Beti ere, lehentasuna emanez paddle pistari eta etorkizuneko skate gunea hartuko duen Uko orubea estaltzeari.

### **Bidegorria bultzatzen segitu**

Lehentasunezkoa irizten diogu Debabarrena eta Debagoiena lotzen dituen bidegorria bultzatzen segitzeari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuarekin elkarlanean, Debabarrena eta Debagoiena lotuko dituen bidegorriaren lotura gauzatu dadin, egin beharreko gestioak egiteari.

### **Garbitasuna eta txukuntasuna**

Hondakinen gaikako bilketa-sistema eta horren kudeaketa hobetzearen alde lan egiten segituko dugu herritarrei zerbitzu egoki bat emateko helburuarekin, Debabarreneko Mankomunitatearekin elkarlanean, herriko garbitasun eta txukuntasunean sakonduz.

## **Arreta, bizikidetzeta eta bizi-kalitatea ipar**

Konpromisoa ondorengoa da: herritarren alde lan egitea, arreta eta zuzeneko arreta gertukoa emanez, euren arazo, kexa, proposamen eta iradokizunei, ahal dugun neurrian, bide ematen saiatuz. Herri-partaidetzan sakonduko dugu, horretan sinesten dugu-eta. Bakean eta bizikidetzan ere pausoak ematen jarraituko dugu, herria bertako herritarrek egiten baitute, eta euren arteko harremana ezinbestekoa da gure herri-ikuspegirako. Soraluzek erronka ugari ditu, ezagutzen ditugu eta gobernuan erakutsi dugun bezala, gai gara erronka eta behar horiei aurre egiteko, eta etorkizuneko ere bide emango diegu eguneroko lanaz. Azken finean, helburu komun bat daukagulako: herritarren eta herriaren bizi-kalitatea hobetzea bertan bizi garen soraluzetar guztiontzat.

### **Idea-lehiaketa, erdigunerako**

Gainera, besteak beste, Plaza Zaharra, Erregetxea eta Ariaseko orubea dagoen herriko erdigunea zaharberritzeko ideia-lehiaketa bat martxan jarriko dugu, beti ere, proiektuaren ardatza herritarrak izanik, eta, bereziki, oinezkoiei eta horien mugikortasunari lehentasuna emanez.



## EHBilduri eta PSE-EEri erantzunak

**EHBILDU: Zergatik uste duzue desagertu dela Alkarrekin Soraluze Eginez dinamika agintaldi honetan?**

Pasa den legealdian Alkarrekin prozesuak hausnarketa-fasea bukatu zuen; legealdi honetan, aldiz, proiektuak lehenesteari eta exekutatzeari ekin diogu, eta horietako bakoitza herritarren partaidetzarekin egin da. Gainera, eta kontuan hartuta parte-hartzeko foroek badituztela euren ahulguneak ere, pauso bat haratago eman da, eta lehenengo herri-galdeketa egin dugu, eta bertan 600 herritarrek baino gehiagok parte hartu dute. Hurrengo legealdiari begira, espero dugu hasitako bideari jarraitzea.

**PSE-EE: Zela baloratzen du EAJk PSE-EErekin Udal Gobernuia osatzeko paktua; zer ekarpen egin diogula uste du?**

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Nahiz eta ideologia desberdinetako alderdiak izan, desadostasunak alde batera utzi ditugu, herri-kudeaketan elkarrekin aritzeko eta herritarren arazoei bide emateko. Horrek, azken lau urteotan, egonkortasun politikoa eta ekonomikoa eman dio Udalari. Horri esker, urte askoan geldirik egon diren eta herriarentzat ezinbestekoak ziren proiektuak gauzatu dira eta emaitzak agerikoak dira.

**"SORALUZEK ERRONKA UGARI DITU; ERAKUTSI DUGUN MODUAN, GAI GARA HORIEI AURRE EGITEKO"**

**"GOBERNUA ADOSTU ALA EZ, ETA ZEINEKIN ADOSTU, ALDERDIEK GOITIK HARTZEN DUTEN ERABAKIA DA"**

## "Zerbitzu publikorako bokazioa daukat"

**IKER ALDZABAL** EAJ-PNVREN ALKATEGAIA

Iker Aldazabal (Soraluze, 1976) da EAJ-PNVk aurkeztu duen alkategaia.

**Zergatik aurkezten zera alkate izateko?**

Txikitatik izan dudana ideia / nahia izan da Soraluzeko alkate izatearena. Herria maite dut, herriarengan sinisten dut eta zerbitzu publikorako bokazioa daukat herriaren eta herritarren alde lan egiteko.

**Alkatetza eskuratuz gero, zer egingo zenuke lehenengo?**

Bideratuta dauden baina exekuzio-fasean gelditu diren proiektuak bukatuko nituzke.



Besteak beste, Pascual Churrukan babes ofizialeko etxebizitzaren promozioa bultzatzea, SAPAko orubean parke publikoaren proiektua bultzatzea, Kiroldegiko anpliazioarekin amaitzea, Udalak bidegorri alboan erosi

duen lur-sailean aisialdirako gunea egokitzea, igerilekuko sabaia konpontzea, Ezozibideko haurren jolaserako parkea zaharberritzea eta abar.

**Gertu egongo zinateke, beste alderdiren batekin gobernuia osatzeko?**

Azken legealdian osatu dugu. Baina gauza bat argi uztea nahi dut. Erabaki hori ez dago ez nire, eta ezta Soraluzeko EAJren esku ere. Hori da alderdiek goitik hartzen duten erabakia. Orain dela hiru urte erabakia hartu zen bezala Udal Gobernuia PSE-EErekin koalizioan eratzeko, eta orain dela 8 eta 12 urte gure alderdiak zuriz bozkatzeko erabakia hartu zuen bezala.



Patricia Borinaga, Ignacio Rubio, Francisco Jose Romero, Ainhoa de Castro, Manuel Morales, Soledad del Bosque, Rafael Galvez, Rosa del Bosque, Daniel Ruiz, Maria Pilar Los Santos eta Eladio Vaquero.

### Umeak eta gazteak

Bestalde, Etxaburueta kalean umeendako parke estali bat egokitu nahi dugu, adin eta gaitasun desberdinak dituzten umeek urte osoan jolastu ahal izateko. Oro har, planifikatu nahi dugu udalerrian dauden umeen parke eta aisialdi gune guztiak berritzea eta egokitzea.

Gazteei dagokienez, berriz, 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako kale-hezitzaileen programa bat jarri nahi dugu martxan (hezkuntza araututik kanpo), ikastetxeekin zein Udaleko Gizarte Ongizate eta Haur eta Gazte zerbitzuekin koordinatuta egongo dena. Programaren helburua litzateke gazteek dituzten arrisku, egokitzapen- eta gatazka-egoerei aurre hartzea eta horiek konpontzea.

### Argindar-sistema

Lehentasunezkoa iruditzen zaigu, argindar azpiegiturak (koadroak, kableatuak...) hobetzeko planifikazioa berrikustea ere; gaur egun, argiteria publikoan izaten diren itzalaldiak saihesteko eta

segurtasun sentsazioa handitzeko. Bestalde, udalerriko zoladura ere hobetuko genuke, besteak beste, dauden zebra-bideak egokituz.

## Agenda soziala eta azpiegitura publikoak

Sozialistok helburu bakar batekin aurkezten dugu gure burua hauteskunde hauek: Soraluze aurrerantz mugitu araztea. Gure kudeaketa oinarrituko da berdintasunean, pluraltasunean, aniztasunean, gardentasunean, parte-hartzean eta kolaborazioan. Gure lehentasunak izango dira agenda soziala, eta zerbitzu eta azpiegitura publikoak hobetzea. Lan egingo dugu eraikita dagoena hobetu eta egokitu dadin erabateko irisgarritasun irizpideetan oinarrituta. Uste dugulako irisgarritasuna bultzatzea dela eman beharreko derrigorrezko pauso urgentea, bermatzeko herritarren aukera berdintasuna eta bizi-kalitatearen hobekuntza. Nahi dugulako guztiondako eta guztion artean egindako Soraluze.

PSE-EEk udalerrirako ikusten dituen lehentasunak dira irisgarritasuna, hobekuntzak auzoetan, umeak eta nagusiak eta argindar azpiegiturak

Lehentasunetako bat izango da Udal Irisgarritasun Planeko ekintzak gauzatea, dauden premien arabera.

Horrekin batera, premiazkoa da inbertsioak udalerriko auzoen artean hobeto banatzea ere; batez ere, aintzat hartzea Calonge eta Zeleta moduko auzoak.

### Nagusiei zuzendutako plana

Azkenik, gure lehentasunen artean dago pertsona nagusiendako lehen udal-plana lantzea ere; herritarren parte-hartzearen bitartez, zahartzaro aktiboa eta Soraluzeko pertsona nagusien autonomia bultzatzera eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako ekintza zehatzak izango dituen udal-plana.



## EAJri eta EHBilduri erantzunak

### EAJ: PSE-EEko ordezkariak kudeatutako alorretan, hurrengo agintaldirako zer proposatuko zenukete?

Gizarte ongizatean kale-hezitzaileen programa abiaraztea, interbentzio familiarrari dagokion programa indartzea, nagusiendako I. Udal-plana egitea eta Esperientzia Gela indartzea proposatzen dugu. Baita II. Berdintasun-plana eta Sexu Aniztasunerako I. Udal-plana egitea ere. Horrekin batera, estalitako parke inklusiboa sortzea nahi dugu eta segitzea bultzatzen ludotekako zein gaztelekuko eskaintza. Baita herriko zoladura apurka berritzea ere eta bermatzea irisgarritasuna goiko auzo eta Maisuen Etxe inguruko etxeetara.

### EHBILDU: Zenbateko garrantzia du PSErentzat zinegotzi guztiak elebidunak, edo gutxienez Belarriprest izateak?

Pentsatzen dugu euskarak gizarte kohesiorako tresna izan behar duela, ez banaketarakoa. Beti defendatu dugu euskararen ezagutza eta erabilera. Baina beti egon gara diskriminazioaren kontra, berdin dio zein arrazoik eragindakoa; horregatik, sekula ez dugu onartuko euskara ez dakien norbait kargu publiko batean auzokideak ordezkatzeko aukerarik gabe lagatzea. Edozelan ere, sozialistondako aurrera egitea, bada euskararen aurrera egitea ere.

## "SORALUZE AURRERANTZ MUGIARAZTEKO AURKEZTEN GARA SOZIALISTAK"

## "GARRANTZITSUENA DA ZER HITZARTU ETA ZERTARAKO, ETA EZ GOBERNUAN EGON ALA EZ EGON"

## "Gakoa da zer hitzartu eta zertarako"

**PATRICIA BORINAGA** PSE-EEKO ALKATEGAIA

Patricia Borinaga (Soraluze, 1973) da alderdi sozialistak aurkeztu duen alkategaia **Zergatik aurkezten zara alkate izateko?**

Nire helburuak jarraitzen duelako izaten Soraluze hobea erakitzea, eta, uste dut, lau urteotan Udal Gobernuan izan ditudan erantzukizunekin erakutsi dudana moduan, horretarako gertu nagoela eta gai naizela. Enpatia, entzuten jakitea eta bizilagun guztiendako mesedegarriak diren akordioak lortzeko gaitasuna izatea oso garrantzitsuak dira halako ardura postua eskuratu nahi izateko.



### Alkatetza eskuratuz gero, zer egingo zenuke lehenengo?

Zaila da gauza bakarra aukeratzea, ze nahiz eta lau urteotan gauza asko egin ditugun, oraindik asko dago egiteko eta hobetzeko. Baina bakarra aukeratu behar izanez

gero, aukeratuko nuke plan integrala egitea kaleko argiteria mantentzeko eta hobetzeko. Uste dut ahalik eta lasterren heldu behar zaiola gaiari, argiztapen txikiak edo kalitate baxukoak eragiten dituen eragozpenez aparte, segurtasun ezaren sentsazioa areagotu egiten duelako. Hori bai, eten barik, gainontzekoa egiten joango nintzateke...

### Gertu egongo zinateke beste alderdiren batekin gobernu adosteko?

Egin dugu hori legealdi honetan, eta uste dugu positiboa izan dela. Maiatzaren 26ko emaitzak ikusi beharko ditugu, baina garrantzitsuena da zer hitzartu eta zertarako hitzartu, eta ez gobernuan egon ala ez egon.

# Musikara hurbiltzeko bidea

DATORREN IKASTURTEAN HELDUENTZAKO ESKAINTZA INDARTU NAHI DUTE



Musika-eskolako irakasleetako batzuk.



Nagore Sanz, eskolako zuzendaria

Prestakuntzarako eskaintza aberastu eta berritu asmoz, Soraluzeko musika-eskolak hainbat ikastaro berri eskainiko ditu datorren ikasturtean, besteak beste, helduentzako tailerra, talde instrumental berriak eta musikoterapia saioak.

Eskolako zuzendari den Nagore Sanzen esanetan, musika-eskolak adin guztietako herritarrei eskaini nahi die aukera musikara hurreratzeko, lau urtetik hasi eta jubilatzen diren herritarrenganaino. Gainera, umeei moduan, helduei ere eskaini nahi diete aukera musika era bibentzian ikasteko: "Aukera eman nahi diegu musikarekin bestelako harreman bat lantzeko, hasieratik ikasketa-prozesua gozagarri eginez eta musika,

erritmoa, ahotsa zein gorpuztaren bitartez landuz".

## Helduentzako tailerrak

Helduentzako musika-tailerrak eskainiko dituzte, bakarka barik, taldean ikasi eta praktikatzeko aukera emateko (14 urtetik gorakoentzako). Doinuen eta erritmoen bitartez, ahotsa eta ahots-teknika landuko dituzte, beste modu batez gerturatzeko partituretara edo instrumentuen ezagutzara. Astean behin edo bi aldiz batuko dira, taldeak erabakitzen duenaren arabera. Bi maila izango dira:

- Hasierakoa: musikarekin kontaktua abiatu nahi dutenentzat.
- Aurreratua: lehenago musikarekin kontaktua izan duten eta orain gehiago sakondu nahi dutenentzat.

**"JENDE HELDU ASKO DAGO ASTIA DUENA ETA INSTRUMENTUREN BAT JOTZEN IKASI NAHI DUENA."**

**"MUSIKAREKIN BESTELAKO HARREMAN BAT IZATEN ERAKUTSI NAHI DIEGU IKASLEEI, BAITA HELDUEI ERE."**

**"MUSIKAK LAGUNTZEN DU NORBERE BURUA EZAGUTZEN, EMOZIOAK KONTROLATZEN, MEMORIA LANTZEN..."**



**Talde intrumentalak: folk eta ganbara musika**

Folk eta ganbara musika lantzeko aukera izango da: duoak, trioak, kuartetoak, musika klasikoa...



Gaztetxoek musika tailerlean.

**Musikoterapia**

Musikaren bitartez emozio eta jokaerak lantzeko saioak izango dira.

**3 Maila edo nibel**

**1. Maila:** Musika-tailerra. 4, 5, 6 urteko umeentzako. Dantzak, kantak eta erritmoa baliatuz, musika deskubritu eta gozatzeko.

**2. Maila:** Instrumentuak, musika-lengoaia, abesbatza eta talde instrumentalak 7 urtetik gorako herritarrentzako.

- Instrumentuak aukeran: Klarineta, saxofoia, biolina, gitarra, pianoa, akordeoia, trikitixa, txistua, tronpeta, gaita,

flauta, tronboia, bonbardinoa, panderoa, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta perkusioa.

- Musika lengoaia: 5 ikasturte.
- Abesbatza: 7-8 urteko ikasleentzat. 2 ikasturte jarraitzeko aukerarekin.
- Talde instrumentalak: folka, konboa, banda eta ganbara musika.
- Diploma eskuratuko da 2. maila osatu eta gainditu ondoren.

**3. Maila:** Diploma osteko ikasketak. Kontserbatorioko sarrera-probak prestatzeko.

**Matrikulazioa**

**Epea:** Maiatzaren 15etik ekainaren 19ra.

**Izen-ematea:** Musika-eskolan.

**Ordutegia:** Astelehena 11:30-12:30 eta 15:00-16:45. Asteazkena 10:30-12:30 eta 15:00-16:45.

Ostirala 10:30-12:00.

**Harremanetarako:**

Tel. 943751544  
soraluzemusika@gmail.com



Elene Etxaniz.

Gitarra elektrikoa jotzen hasi naiz orain dela gutxi, eta jotzen ditut flauta eta txistua ere, txarangan, bandan.... Bestela, neuretzako, aspertuta nagoenean, deskonektatzeko...



Juan Carlos Astiazaran.

36 urte dira pianoa ikasten hasi nintzela. Niretzat entretenimendua da. Pianoa jotzen dudanean denbora beste modu baten pasatzen da.



Elena Garaikoetxea

Jubilatu nintzenean hasi nintzen trikitixa ikasten. Orain dela bi urte. Beti gustatu zait musika eta dantza eta probatzea erabaki nuen. Trikitiari alaitasuna ematen dit.



Neska-mutikoak iazko kirol udalekuetako jarduera baten parte hartzen.

# Kirol abenturak eta patinajea aukeran

Maiatzaren 20an zabalduko dute kirol-udalekuetarako izen-ematea, maiatzaren 31ra arte. L.H. ikasleei zuzenduta dago.

Eskolako oporrak hartu eta hurrengo astean bertan hasiko da aurten kirol-udalekuen lehen eskaintza.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta daude, eta patinajea jarduteko

aukera eskainiko dute, goizez, hiru taldetan banatuta: hasiberrientzako, maila ertaina daukatenentzako eta ondo dakitenentzako.

Izen-emateari dagokionez, eskolan bertan bantuko

dituzten informazio-orriak bete eta kiroldegira eraman behar dira. Zortzi euro da ekimenean parte hartzeko prezioa.

### Abentura kirolak

Ondoren, uztailaren 1etik 5era, uda-kirola ekimena egingo dute, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko neska-mutikoei zuzenduta.

Aurten, gainera, berritasunarekin dator eskaintza hori. Batetik, astebetekoa izango da eta ez hamabost egunekoa, iaz moduan. Eta bestetik, abenturan oinarritutako hainbat jarduera probatzeko aukera emango dute: ginkana, arku-tiroa, herri kirolak, eskalada, orientazioa, oreka tailerra eta beste. 10:00etatik 13:00ak bitarteko jarduerak izango dira, Inguru Abentura enpresako begiraleek gidatutakoak. Kasu horretan prezioa 25 eurokoa da.

### Iaz, 80 ume pasa

Iaz 87 neska-mutikok parte hartu zuten kirol-udalekuan: 44k patinajea eta beste 43ek uda-kirolean.

## Piraguismoa, zumba eta hockeya eskainiko dira Kirol Egunean

Maiatzaren 18an, zapatuan, egingo dute aurtengo V. Kirol Eguna, goizetik eguerdira bitarteko kirol eskaintzarekin.

Hain justu, 10:30etik 13:30era piraguismoa praktikatzeko aukera izango da, Bergarako Beti Busti elkartearen eskutik. 14-15 piragua ekarriko dituzte eta probatu nahi dutenak txandaka ibili ahalko dira

piraguetan. 11:30ean, berriz, hockeya praktikatzeko sortu den taldeak Plaza Zaharrea erakustaldia egingo du.

### Iaz 80 ume pasa

Eta Kirol Eguna borobiltzeko, zumba egiteko aukera izango da, 12:30ean Zubi Nagusian, Arane kiroldegiko begiraleek gidatuta.



Piraguetan, iazko kirol egunean.



# Trikitolari gazteen topaketa

Ekainaren 1ean, *Debagoieneko Trikitixa Eguna* ospatuko da herrian eta 350 musikari inguru batzea espero da.

Topaketan 350 ikasle inguru batuko dira, horietatik 17, herrikoak, eta gainerako gehienak Debagoieneko herrietatik etorritakoak: Aramaiotik, Aretxabaletatik, Arrasatetik eta Oñatitik. Bestalde, Baxenafarroako Donapaleu herritik ere etorriko dira beste hainbat.

Antolaketa-batzordeak egun osoko egitaraua prestatu du: kalejira, emanaldi bateratua, bazkaria, erromeria... eta beste hainbat ekimen, beraz "aukera



Herriko trikitilari eta ikaleak.

polita izango da egun eder bat pasatzeko".

## Rocka, bluesa eta punka Arranoan

Maiatzean eta ekainean zehar, rock, blues eta punk estiloak jorratzen dituzten taldeek joko dute Arranoan. Gehienak Euskal Herriko taldeak dira baina tartean bada Alemaniatik datorren bat ere.

Ondorengo da iragarri duten kontzertu sorta: maiatzaren 10ean, barikuan, Azken Hatsa (Punk & Roll -Araba); maiatzaren 25ean, zapatuan, Strach (Alemania); ekainaren 7an, barikuan, EH Sukarra (Rock-Eibar); ekainaren 21ean, barikuan, Azkaiter Pelox (Rhythm & blues -Bergara) eta ekainaren 28an, barikuan, Koiu (Punk rock - Galdakao). Kontzertu guztiak arratsaldeko 20:00etan hasiko dira.

# Herriko kultura-ondarea online

Maiatzaren 18an aurkeztuko dute *Soraluze bizi Soraluzen* izan ekimenaren baitan, kantuak eta historia online jartzeko egindako lana:

Orain dela bi urte, herri curriculum osatu asmoz, *Soraluze bizi Soraluzen* izan ekimena abiatu zuen Hezkuntza proiektuak; helburua: herriko kultura-ondarea bildu eta unitate didaktiko moduan eskaintzea. Maiatzaren 18an, bi urteotan egin duten lana aurkeztuko dute jendaurrean, jasotako materiala eta webgune interaktiboa. 12:00etan izango da, antzokian.

### 30 kantu

Bi urteotan, armagintza, Deba ibaira eta herriko hainbat kultur adierazpenen gaineko materiala jaso dute, besteak beste, 30 kantu. Horietako batzuk jatorriz herrian sortuak dira eta beste batzuk kanpotik ekarri eta moldatuak. Kantu horietako 8, itxuraz balio handiena dutenak, grabatu egin dituzte herriko musikarien laguntzaz. Horiek eta beste hainbat material aurkeztuko dituzte antzokian.

## Comunicado de muerte antzezlanak

Maiatzaren 18an, arratsaldeko 20:00etan, *Comunicado de muerte* izeneko antzezlan eskainiko dute antzokian.

Antzezlanak Salvador Puig Antichen bizitza kontatzen du eta berau exekutatu zutenean gertatu zena -Espainian garrote vil metodoarekin hil zuten azken preso politikoa izan zen-, Batez ere, Antichek Jesus Irurre gartzelako funtzionarioarekin izan zuen harremana. Obra Eduardo Pombar plazentziatarrak zuzendu du, eta hainbat sari jaso ditu aurkeztu zutenetik: Espainiako Arte Eszenikoen saria 2017an eta zuzendaririk onenaren saria *Antez-Motz* sariketan.

## ZERBITZUAK

---

### ZORION AGURRAK

---



**Oihan Arrieta,**  
Apirilaren 30ean, 4  
urte. Zorionak eta  
muxu pila bat! Maite  
zaitugu. Etxekoan  
partez.



**Inar Arroyo Madera**  
Maiatzaren 24an, 8  
urte. Zorionak, Inar  
tximista! Ondo-ondo  
ospatu! Etxekoan  
partez.



**Eneko Gonzalez  
Armengol**  
Maiatzaren 18an, 8  
urte. Zorionak! Ondo  
pasatu zure  
egunean. Etxekoan  
partez.



#### **1928an jaiotakoan bazkaria**

Martxoaren hasieran bost emakume batu ziren bazkaltzera Armendin: Mari Cruz Etxaniz, Pilar Belategi, Margarita Maitzegi, Jesusa Maiztegi eta Maria Irusta. Bejondeizuela eta urte askotarako!

### JAIOBERRIAK

---



**Leire Laskurain Lopez**  
Apirilaren 22an jaio zen



**Urko Del Rio Cerreduela**  
Otsailaren 17an jaio zen



**Maialen Romero García**  
Otsailaren 27an jaio zen

### OHARRA

---

#### **Laguntza eske**

Ekainaren 2an, Haurren Euskal Jaia dela-eta, dantzari txikiak etorriko dira herrira eta Euskal Jai Batzordeak herritarren laguntza behar du dantzarietaz bazkaltzen emateko, norbere etxe edo elkartean.

Lagundu nahi baduzu, eman izena Iratxo goxodendan.

Aldez aurretik, eskerrik asko!  
Euskal Jai Batzordea



Banarte Antzerki Taldeak aurkezten du

# Comunicado de muerte

Zuzendaria:  
**Eduardo Pombar**

Maiatzak 18,  
zapatua

20:00etan,  
antzokian



**Fp**  
FABRIKAZIAREN  
ZENTRO AVANZADO  
DE FABRICACION

**IMH**  
FABRIKAZIAREN  
ZENTRO AVANZADO  
DE FABRICACION

**HEZIKETA ZIKLOAK**

**Informazio saioa:** maiatzak 18  
11:00etan | IMH (Elgoibar)

**Baieztatzeak:** 943 74 82 65  
amaia@imh.eus

**Webgune berria!**  
[www.imh.eus](http://www.imh.eus)

**IMH**  
FABRIKAZIAREN  
ZENTRO AVANZADO  
DE FABRICACION

UPV EHU

**INGENIARITZA GRADU DUALA**

**Informazio saioa:** maiatzak 18  
11:00etan | IMH (Elgoibar)

**Baieztatzeak:** 943 74 82 64  
ingeniaritza.ehu@imh.eus

**Webgune berria!**  
[www.imh.eus](http://www.imh.eus)



# SORALUZE

## BAT EGINIK



**IKER ALDAZABAL BASAURI**  
SORALUZEko ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

**MARKEL OLANO ARRESE**  
GIPUZKOAKo DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA



**eaj**  
**pnv**

EAJ-PNV.EUS



**EMAN BOTOA**